



Arartekoaren 2018R-2584-17 Ebazpena, 2018ko apirilaren 17koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpen bat berrazter dezan.

Aurrekariak

1. 2017ko urriaren 20an, herritar batek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular denak, Arartekoarengana jo zuen eta haren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbidek emandako ebazpen batekin.

Hain zuzen, 2016ko abuztuaren 16an, Lanbideko zuzendari nagusiak ebatzi zuen kexagileak 2.500 euro itzuli behar zituela. Hona hemen ebazpenean jasotako arrazoia:

- *"Otros motivos PCV: NO PRESENTA JUSTIFICANTES PCV DE Enero a Junio 2013, ni los meses: Agosto, Noviembre y Diciembre 2013, Agosto 2014, y Febrero y Marzo de 2015."*¹

Horren aurretik, 2016ko martxoaren 18an, gertaera horrek berak kexagileari etxebizitzarako prestazio osagarria etetea ekarri zuen.

2. Kexagileak azaldu zuen ez zegoela ados Lanbidek hartutako erabakiarekin. Adierazi zuen bazitekeela adierazitako hilabetetako batzuk bere banku sukurtsaleko leihatilan ordaindu izana eta, hori zela eta, beharbada ez zuela ordainketa egin izana une hartan egiaztatzeko modurik. Hala ere, gaineratu zuen hainbatetan etxebizitzako jabearen bankuko kontu-laburpenen kopia aurkeztu zuela, eta horietan 2012ko abendutik 2015eko apirilera bitartean etxeko errentagatik izan zituen diru-sarrerak zeudela jasota.

Halaber, etxeko jabearen legezko ordezkariaren zinpeko deklarazio batzuk aurkeztu zituen interesdunak. Horiek ziurtatzen zuten kexagileak errentari gisa zegozkion ordainketa guztiak egunean zituela.

3. Hori dela tarteko, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen jasotako zenbatekoak itzuli behar zituela adierazi zuen ebazpenaren aurka.
4. Lanbidek errekurtso hori ezetsi zuen 2017ko urtarrilaren 11ko ebazpenaren bidez. Ildo horretan, Lanbideko zuzendari nagusiak esan zuen arrazoi hau zela-eta hartu zuela erabaki hori:

¹ Azpimarra Lanbideko zuzendari nagusiarena da.



- *"(...) los únicos justificantes válidos son los documentos bancarios que acrediten dichos ingresos. La recurrente no ha aportado justificantes válidos de diferentes meses. Sí aporta un escrito del tutor del propietario en el que se indica que está al día de los pagos de alquiler, pero este tipo de justificantes no es válido, pues en el contrato se establece como medio de pago, y por tanto, justificación del pago, los documentos bancarios."*

5. Azaldutakoa ikusita, 2017ko azaroaren 21ean, Arartekoak lankidetzara eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Horren bidez eskatu genion azaldu zezan zergatik adierazi zuen Lanbidek interesdunak 2.500 euro itzuli behar zituela.

Horrez gain, Arartekoak alde aurretiko zenbait gogoeta helarazi zizkion sail horri etxebizitzako gastuak jakinarazteko moduei lotuta; ez errepikatzearen, jarraian jasoko ditugu.

6. Horri erantzunez, 2018ko otsailaren 16an, Lanbideko zuzendari nagusiaren idatzi bat jaso genuen erakunde honen erregistroan. Horren bitartez, prestazioak bidegabe jaso zituela-eta kexagileari 2.500 euro itzularazteko erabakiari eutsiko ziola jakinarazi zigun.

- *"Kexagileak hainbat ordainagiri aurkeztu bazituen ere, horiek ez zituzten betetzen ezarritako baldintzak 2/2010 Dekretuaren 19. Artikuluan jasotakoak hain zuzen ere".*

Azken batean, Lanbideko zuzendari nagusiak berriz ere esan du transferentzia bat egin izana frogatzen duten bankuko agiriei bakarrik balio dutela etxebizitzaren gastuak egiaztatzeak. Hori dela eta, erakunde horrek zalantzan jarri du etxeko jabearen banku kontuko diru-sarreraren laburpenak eta kexagileak ordainketak egunean dituela dioen zinpeko deklarazioa aurkeztu izanak egiaztatzen dutenik interesdunak etxebizitzarako prestazio osagarria onartu zioten helbururako erabili izana.

7. Beraz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren (aurrerantzean, 2/2010 Dekretua) 4. artikulua honako hau ezartzen du:

"etxebizitzarekin loturiko premiatzat hartuko dira etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairu-gastuak, edozein modalitatetan, hots, errentamendua, azpierreantamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua."





Titularrei dagokienez, 2/2010 Dekretuaren 5.1.b) artikulua hau dio:

“Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak:

(...)

b) Titularrak 4. artikuluan bilduriko ohiko etxebizitza edo bizitokiko aldizkako gastuei erantzun behar izatea, eta ohiko helbidea duen udalerriko udal gizarte-zerbitzuek egiaztatu beharko dute premia hori”².

Alde horretatik, 2/2010 Dekretuaren 7. artikulua ezartzen du etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrek, besteak beste, betebeharrak hau dutela:

“a) Prestazioa zein helburutarako eman den, horrexetarako baino ez erabiltzea.”

2. Interesdunak 2.500 euro itzuli behar dituela ebatzi du Lanbideko zuzendari nagusiak. Izan ere, haren ustez, etxeko jabeak bere banku kontuan 2012ko abendutik 2015eko apirilera bitartean izandako diru-sarreraren laburpenen kopia nahiz kexagileak errentaren ordainketak egunean dituela berresten duen jabearen zinpeko deklarazioa aurkeztu izana ez da nahikoa etxebizitzaren gastua egiaztatzeko.

Horri lotuta, adierazi du ordainketak ez direla 2/2010 Dekretuaren 19. artikuluekin bat egin.

3. Lanbideko zuzendari nagusiak azaldutakoa gorabehera, Arartekoaren iritziz, kexagileak etxebizitzarako prestazio osagarria bete-betean etxearen hileroko errenta ordaintzeko erabili duela egiaztatu du, etxebizitzarako prestazio osagarria erregulatzen duen araudian onartutako bitartekoak erabiliz.

Hain zuzen ere, 2/2010 Dekretuaren 19. artikulua, Lanbideko zuzendari nagusiak bere erantzunean aipatutakoak, honako hau ezartzen du berariaz:

“Emate-ebazpenari dagokionez, etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke”³.

² Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legea eta azaroaren 24ko 4/2011 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Legea aldatzeko, onartzearen ondorioz, “udalerriko udaleko gizarte zerbitzuak” dioen lekuan “Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua” ulertuko da horren ordez.

³ Azpimarra Arartekoarena da.





Hortaz, Lanbidek etxebizitzako jabeak emandako bankuko kontu-laburpenen kopia egiaztatgiri balioduntzat onartu beharko zukeen. Han, 2012ko abendutik 2015eko apirilera bitartean bere banku kontuan egindako errentaren ordainketak ageri dira.

4. Arartekoaren iritziz, interesdunak prestazioak itzuli behar dituela adierazteak ez du lege babesik eta neurritz kanpokoak da. Izan ere, kexagileak 2/2010 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz egiaztatu du etxebizitzarako prestazio osagarria etxebizitza premiak asetzeko erabili duela.
5. Arartekoak berriz ere nabarmendu nahi du 2015R-835-15 Ebazpenean, abenduaren 22koan,⁴ eta Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017⁵ izeneko dokumentuan adierazitakoa.

Zehazki, Arartekoak Lanbideren jardunean jarri du arreta; izan ere, erakunde horrek prestazioen titular izateko baldintzak betetzen dituzten hainbat bizikidetzatza unitateri eskatu die horiek itzultzeko.

Kexak izapidetzean, Arartekoak egiaztatu du, zenbaitetan, titularren jokabideak, esate baterako alokairuaren gastuen ordainagiriak berandu aurkezteak, neurritz kanpoko ondorioak dakartzala. Hau da, prestazioa etetea (etenaldiaren iraupena aldakorra da espediente batetik bestera) eta prestazioak itzularaztea, askotan, ez-betetzea gertatu zenetik.

Alde horretatik, Arartekoaren aburuz, Lanbideren berrikusteko eskumenak ezin du prestazioak itzultzeko betebeharra ekarriko duen bide hedagarririk eduki, prestazioaren titularra izateko betekizunei edo esleipena eragin zuten arrazoiei eragiten ez dieten betebeharrak bete ez izanean oinarrituta.

Konstituzioaren 9.3. artikulua segurtasun juridikoa bermatzen du. Horrekin, egoera juridiko bat, esaterako, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidearen aitortza, mantenduko delako ziurtasuna bermatzen da, onuradunak hura jasotzeko betekizunak betetzen dituelako, eta administrazioak ezin du, berariazko lege oinarrikerik izan gabe, hura itzultzeko eskatu.

⁴ **Arartekoa.** Arartekoaren 2015R-835-15 Ebazpena, 2015eko abenduaren 22koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatu zaio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari zehazki, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbatekoak eskatzean jardunbide jakin batzuk burutu ditzala [online eskuragarri]: http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3854_1.pdf

⁵ **Arartekoa.** Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017. 5.3.2. puntua, 75. eta 137. orrialdeak [online eskuragarri]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

Horren ondorioz, Lanbideri honako hau helarazi zaio behin baino gehiagotan: betekizunak betetzeari utzi zaionean soilik erreklama daitezkeela prestazioak, edo, bestela, interesdunei aitortutako zenbatekoa aldatu behar zaienean, hura kalkulatzeko kontuan hartutako egoera aldatu delako.

Prestazioa hainbat hilabetez eteteak eta jasotako prestazioak itzularazteak oso ondorio kaltegarriak dakartzate bizikidetzaren unitate titularrentzat eta, batzuetan, ez-betetze batzuei dagokienez, neurritz kanpokoak izan daitezke horiek.

6. Laburbilduz, nahiz eta Lanbideren argudioa onartu, hots, kexagileak ordainagiri batzuk zegokion epean aurkeztu ez zituela-eta eten ziola erakunde horrek prestazioa 2016ko martxoaren 18an, horren ondoren kexagileak egiaztatu du etxebizitzako gastuak ordaintzeko erabili duela etxebizitzarako prestazio osagarria. Adierazi dugunez, horretarako, jabeak emandako bankuko kontu-laburpenak eta ordainagiriak aurkeztu ditu prozeduraren hainbat unetan.

Gainera, ordaintzeko era errentamendu kontratuan jasotakoa ez izan arren, horrek ezin du ondorioz ekarri 2/2010 Dekretuan (5.1.b), 7. eta 19. artikulua) xedatutakoa betetzeari dagokionez. Izan ere, kontratu horrek ondorioak ditu alderdi kontratugileengan, eta hura aldatu egin daiteke (Kode Zibilaren 1091. eta 1203. artikulua).

Arartekoaren ustez, Lanbidek hautematen badu ordaintzeko era ez dela errentamendu kontratuan jasotakoa, egiaztapen batzuk egin ditzake ondorioztatzeko 2/2010 Dekretuan ezarritako lege xedapenak bete ote diren. Izan ere, prestazio ekonomikoak kudeatzen dituen erakunde publiko bati eska dakioken arduraren sartzen da hori, legeak behar bezala aplikatzen direla zaindu behar du eta.

Horrenbestez, Arartekoaren iritziz, prestazioak etetea eta erreklamatzeko, errenta ez delako kontratuan adierazi bezala ordaindu, iruzurrik edo irregulartasunik gertatu den adierazten duen beste egiaztapenik egin gabe, ez du lege babesik.

7. Azkenik, kexagileak esan du ez diotela jakinarazi, prozeduraren ezein momentutan, nola kalkulatu den erreklamaturako zenbateko zehatza.

Alde horretatik, Arartekoari egokia iruditu zaio Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 3. Epaitegiaren otsailaren 6ko 46/2018 Epaian jasotako gogoetak jakinaraztea:

- *“Se viene observando de un tiempo a esta parte como Lanbide reclama cantidades como ingresos indebidos, cuyo origen se encuentra en una resolución o una causa que dista prácticamente el tiempo de prescripción de cuatro años previsto, para la recuperación de ingresos indebidos.*

La distancia temporal entre el origen del reintegro y la incoación de este, con mayor razón, en supuestos como el presente en el que la causa por la que se declara el ingreso indebido, ni siquiera hunde sus raíces en una



resolución, exigen una mayor precisión en la exposición de las operaciones realizadas para el cálculo de la cantidad a reintegrar (...)

Y la facilidad probatoria para Lanbide es total, frente a la mayor dificultad que tiene el administrado para la verificación de los cálculos que permitan conocer la exactitud de la cantidad que se les reclama, contenido esencial en definitiva de la resolución de reintegro, máxime cuando hunde sus raíces en una resolución previa de la que trae causa y que resulta en la mayoría de supuestos inatacable. Esto hace que el contenido esencial de la resolución de reintegro sea la cantidad y por ello es necesario conocer su origen."

8. Horrenbestez, Arartekoa ados dago Lanbidek zorrotz jokatu behar duela titularrek etxebizitzarako prestazio osagarria zertarako erabiltzen duten egiaztatzeko orduan; hala ere, zorrotzasun horrek ezin ditu murriztu 2/2010 Dekretuaren 19. artikuluan aitortutako egiaztatzeko moduak.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortzen eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, honako gomendio hau egin dugu:

GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio interesdunak 2.500 euro itzuli behar dituela adierazi duen Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpena indargabetu dezan, kexagileak behar bezala egiaztatu baitu etxebizitzarako prestazio osagarria bete-betean etxebizitzaren hileroko errenta ordaintzeko erabili duela.

Nolanahi ere, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gogorarazten dio une oro jakinarazi behar duela nola kalkulatu dituen erreklamaturako zenbateko zehatzak.

